

Irakasleen eskuorria

EAEko irakaskuntza publikoa

2019-2020

- Lanaldia
- Baimenak eta lizentziak
- Ordezkoen hurrenkera
- Odol-ahaidetasuna
- Gurasotasuna
- Lan istripuak
- Lanbide heziketako ordezkapenetan ordu banaketa
- Nomina



www.steilas.eus

Lanegunen ordutegia

Lehen hezkuntza

Lanaldi mota	Ordu kopurua guztira	Irakastorduak	Osagarriak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	23	7	5
Herena	10	8	2	3
Erdia	15	12	3	4
Bi heren	20	15	5	5
Bost seiren	25	20	5	5

Bigarren hezkuntza

Lanaldi mota	Ikastetxeari arreta zuzena	Ikastetxean egon beharreko orduak	Irakastorduak	Osagarriak	Gutxienez astero joan beharreko egunak
Osoa	30	23	17-18	5-6	5
Herena	10	8	6	2	2
Erdia	15	11	8-9	3	3
Bi heren	20	15	11-12	4	4
Bost seiren	25	19	14	5	5

* Edozein lanaldi motan berdin puntuatzen da.

** Jardunaldi murriztuan, bizilekutik 50 km baino urrunago, uko egin daiteke.

Baimenak eta lizentziak

Baimenak eta lizentziak	Art.	Nork	Iraunaldia	€
Gaixotasuna edo istripua	39	KPBO	Med.alta edo kontratuaren amaiera arte.	Bai
Gurasotasuna	40. 41.	KPBO	18 aste + 2 jaioberria ezgaitua bada edo erditze multipleetan bada seme – alaba bakoitzagatik.	Bai
Adopzioa e.a.	40.2	KPBO	18 aste, 2 aste gehiago ezgaitua bada eta baita bigarren umearengatik. Nazioartekoa bada, bidaia egiteko 2 hilabete arte baimena.	Bai
Edoskitzea	40.5	KPBO	Egunero ordu bat, haurrak 12 hilabete izan arte. Meta daitezke: 6 ordu = egun bat.	Bai
Ezkontza/ bikotetza	42	KPBO	20 egun naturalak, egun hori barne. 6 urtetan ezin da berriz eskatu.	Bai
2. mailako senideen ezkontza	42.3	KPBO	Egun 1 (+2 egun naturalak, 150km baino urrutiago ospatzen bada).	Bai
Senideen gaixotasun larria edo heriotza	43	KPBO	Bikotea edo seme-alaba, 5 lanegun. Senideen heriotza 2 mailara arte, 3 lanegun. Senideen gaixotasun larria, 2 mailara arte 2 lanegun + 2 naturalak 150km-ra baino urrunago bada. Errepika daiteke 30 egun geroago, terminala salbu.	Bai
Senideen gaixotasunagatik jardunaldia murrizteko aukera	44	KPBO	1 mailako senideak zaintzeko, harekin biziz gero, lanaldiaren erdira edo herenera murrizteko aukera hilabete batez.	Bai
Nahitaezko betebeharrak	45	KPBO	Behar den denbora.	Bai
Etxebizitzaz aldatzea	46	KPBO	Bi lanegun.	Bai
Ordezkaritza sindikala edo langileena	47	KPBO	Legediaren arabera.	Bai
Genero-indarkeriaren biktima	48	KPBO Emak	Osasun edota gizarte zerbitzuek esaten dutena.	Bai
Adingabeak, ezgaituak, edo 2. mailako senideak zaintzeko	49	KPBO	Herena edo erdiaren murrizketa adingabeak 12 urte bete arte.	Bai %
2. mailako senideak gaixotasun kroniko edo mugitzeko arazoekin	50	KPBO	Gehienez 2 ordu egunean, lanaldi hasieran edo bukaeran, gehienez 50 ordu ikasturteko.	Bai
Erlazionaturiko ikasketak	51	K	Kopuru mugatua.	Bai
Beste ikasketak	52	K	Ikasturte luzaezin bat.	Ez
Azterketak	53	KPBO	Egun natural bat (+2 150km-tara bada).	Bai
Administrazioaren barne promoziorako probak	54	KPBO	Behar den denbora.	Bai
Medikuak	55	KPBO	Behar den denbora. Erditzea prestatzeko, astero 4 ordu.	Bai
Zientzia, sindikal ekitaldiak	56	KPB	Behar den denbora 5 egun arte.	Bai
Hautapenezko karguaren betebeharrak	57	KPB	Urteko ordutegia edo % 10 gehienez. Herena edo erdiaren murrizketa.	Bai Ez
Norberaren eginkizunak	58	KB (2)	Gehienez 4 hilabete 2 urtero.	Ez
Ordaindu gabeko baimena	59	K	Urte bat edo 6 hilabete: Abu-Urt edo Ots-Uzt 5 urtean behin.	Ez
Urte sabatikoa	60	K	4 urtez lanean eta urte bateko baimena.	% 84

Zehaztasunak: 2010-VII-16ko EHAA (39-60 artikulua).

K: karrerako, P: praktikatuko, B: bakantea, O: ordezkoa.

(2) Urte batez, etenik gabe, lanean egon direnak.

Ordezkoen hurrenkera nola ulertu

Aukeratutako zerrendako posizioaren xehetasunak

Maila kodea	Maila	Ikasgai kodea	Ikasgaia	Deialdia
20	Irakaskuntz ertainak	0986	Curriculum desberdinak eratzekoa. Hizkuntza-gizart.	A

Eguneratze data eta ordua: 2015/04/29 – 08:04:23

Bizkaia* • Orden zenbakia: XXX												
Lanaldi-laburtzea	Bai			Ez			R (Bakarrik)			Guztira		
Irakasteko Hizkuntza Eskakizuna	0	1	2	0	1	2	0	1	2	0	1	2
Aurreko hautagai kop.	1	1	28	2	3	7	1	0	2	4	4	37

Nola irakurri?

Jardunaldi guztietan egonez gero:

Guztira **45** pertsona aurrean (4+4+37)

Jardunaldi murriztuan bakarrik egonez gero:

Bai + R (30+3) = **33** pertsona aurrean

Jardunaldi osoan bakarrik egonez gero:

Bai + Ez (30+12) = **42** pertsona aurrean

Orden zenbakia = zerrenda horretan zein postuan dagoen

BAI (osoan eta murriztuan)

EZ (osoan bakarrik)


R (murriztuan bakarrik)

0 = PLO

1 = PL1

2 = PL2 (Kontuan hartu behar da PL2koek PLO eta PL1eko ordezkapenak ere egin ditzazketela)

Odol-ahaidetasunaren organigrama



42. artikulua

Norberaren edo senitartekoren baten ezkontzagatiko lizentzia

Ezkontza:

20 egun (ezkontza eguna barne)

1.go + 2. mailako senideen ezkontzagatik:

egun bat (ezkontzako)
+ 2 egun natural,
150km-tara bada

43. artikulua

Senideen gaixotasun larri edo heriotzagatiko lizentzia

2 lanegun:

2. mailara artekoen gaixotasunagatik

3 lanegun:


2. mailara artekoen heriotzagatik

5 lanegun:


bikotekidearen edo seme-alaben gaixotasuna edo heriotzagatik

+ 2 egun natural, 150km-tara bada


Haurdunaldia




Erditzeko unea




Edoskitzea



Baimena eta edoskitzea amaitu eta gero



Ordezkoak



Gurasotasun baimenak

Ama biologikoaren jaiotzagatiko baimena; adopzioa, adopzio aurreko zaintza, edo harrera aldi baterako zein iraunkorragatiko baimena; eta ama biologikoa ez den gurasoaren seme-alabaren jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatiko baimena.

18 asteko baimena hartzeko eskubidea izango dute. 2 aste gehiago haur gehigarri bakoitzeko eta 2 aste gehiago umeak desgaitasunen bat izanez gero.

Baimen hauek instransferibleak dira.

	Ama biologikoa	Ama biologiko, adoptatzaile, zaintzaile edo harrerakoa ez den gurasoa			Nola hartu behar dira asteak?
		2019/09/01tik	2020	2021	
Nahitaezko zatia	6 aste	2 aste	4 aste	6 aste	Etenik gabe. Umea jaio eta jarraian
Borondatezko zatia	10 aste	6 aste	8 aste	10 aste	Etenik gabe edo zatika (salbuespenak daude)
Hobetutako zatia	2 aste	10 aste	6 aste	2 aste	Etenik gabe (salbuespen bat dago)

Nahitaezko zatia: Haurra jaiotzen den egunetik edo adopzioa, adopzio aurretiko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala ematen denetik gozatuko da, etenik gabe.

Borondatezko zatia. Bi modutan hartu daiteke: etenik gabe edo zatika.

1. Etenik gabe, aste guztiak jarraian.

- Derrigorrean etenik gabe izango da bi kasu hauetan:

- > Bi gurasoetako batek lanik egiten ez badu.
- > Adopzio, zaintza edo harreretan haurra 12 hilabetetik gorakoa denean.

2. Zatika hartzen bada asteka hartu behar da haurrak 12 hilabete bete arte.

- **Ama biologikoak:** nahi duenean.
- **Beste gurasoak:**
 - > Ama biologikoaren nahitaezko 6 asteak eta gero, edo.

> Ama biologikoaren edo beste adoptatzaile/zaintzailearen baimena (aste guztiak, nahitaezkoak + borondatezkoak + hobetutakoari dagozkionak) amaitu eta gero.

> Ama biologikoak edo adoptatzaile/zaintzaile/harrerako gurasoak edoskitze metatua eskatuko balu, hau bukatu eta gero hasiko da gainerako borondatezko zatiari dagokion baimen-asteen kontaketa.

Baimena zatika hartzen denean aste osoak hartuko dira eta zati bakoitza hartzeko aurreabisu errebokaezina egin behar da gutxienez 15 lanegun lehenago. Sektore bakoitzean eskaerak helarazteko helbide elektronikoa ezarriko da.

Aldaketa egikaritzeko beharrezko garapen informatikoa egiten ez den bitartean, baimena zatika hartuz gero, ordainketa aste guztiak agortutakoan gauzatuko da.

Hobetutako zatia:


Borondatezko zatia amaitutakoan hartu behar da, jarraian eta etenik gabe.

Salbuespena: jarraian hartzeko derrigortasun horretatik salbuetsita daude kontratu amaiera jakin bat dutenak. Horiek hurrengo izendapenean edo kontratua hasitakoan berehala jarraituko dute baimenarekin agortu arte (haurrak 12 hilabete bete aurretik).

STEILASen legeak baliatutako Ama Biologikoa terminoa erabili badugu ere, errealitatea kontzeptuak jasotzen duen esanahia baino askoz ere zabalagoa dela ulertzen dugu.

Lan istripuak, nola jokatu

Ikastetxeko Zuzendaritzak
beti bete behar du jakinarazpena eta Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzura zein Nomina sailera bidali



Zer da laneko istripua?

Langilea lanean ari dela edo lanaren ondorioz jasan dezakeen edozein gorputz-lesio.

Laneko istripuen barruan "IN ITINERE"

istripuzat joko da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

Zer da Gorabehera (intzidentzia)?

Edozein jardueratan aritzean eman daitekeen edozein egoera, lesiorik eragin ez, baina lesioak eragin ditzakeena. (Segurtasun-laguntzaileari komunikatu eta erregistratu behar dira).

Gaixotasun profesionala: Irakasleon kasuan NODULOak besterik ez.

Laneko istripua, baja eragiten duena:

lan istripu baten ondorioz baja hartu baduzu, lan sariaren %100 dagokizu.

Lanbide heziketako ordezkapenetan ordu banaketa

Demagun, udako esleipenetan zein ordezkagunean, LHko *Osasun eta Laguntza Prozedurak (1567)* espezialitateko jardunaldi osoko plaza bat honela irteten dela:

ASESE 7,6 or., OSLA 6 or., LELA 1.9 or., PLANES 1.9 or. (GUZTIRA = 17,4 or.)

Horietako modulu batzuk 2. mailakoak direnez –ASESE eta PLANES moduluak hain zuzen ere– eta LHko 2. mailako ikasleek 3. hiruilekoan enpresetara praktiketara doazenez Lan Prestakuntza (FC7) modulua burutzeraz, ikasturtean 3 ebaluazioetan eman beharreko irakastorduek, lehenengo 2 ebaluazioetan metatzen dira. Ondorioz, irakaslearen jardunaldiak 17/18 ordu baino gehiago izango ditu bi ebaluazio horietan.

Horrek guztiak LHko irakasle ordezkoen artean nahasmena sortzen du ez baitakite zein jardunaldi bete behar duten.

Kontutan izanik ikasturteak 33 aste dituela, gure adibidearen arabera bi modulu horiek horrela banatuko direla ondorioztatzen dezakegu:

- ASESE: OCBaren arabera, modulu honi 252 ordu dagozkie,beraz:

252 ordu/33 aste (3 ebaluazio) = 7.6 or. (plaza perfilatzeko zenbatuko duen ordu kopurua)

Ordu kopuru hau 2 ebaluaziotan metatu behar denez, modulu honek astean izango duen lan ordu kopurua ondorengoa izango da:

252 ordu/22 aste (2 hiruileko) = 11.45 or. (borobilduz 12 or.)

- PLANES: OCBaren arabera, modulu honi 63 ordu dagozkie,beraz:

63 ordu/33 aste = 1.9 or. (plaza perfilatzeko zenbatuko duen ordu kopurua)

Ordu kopuru hau 2 ebaluaziotan metatu behar denez, modulu honek astean izango duen lan ordu kopurua ondorengoa izango da:

63 ordu/22 aste (2 ebaluazio) = 2.86 or. (borobilduz 3 or.)

2. mailako orduak nola banatzen diren behin jakinda, ikasturtea honela antolatzen da:

	1go hiruilekoa	2. hiruilekoa	3. hiruilekoa
ASESE	12 ordu	12 ordu	0 ordu
PLANES	3 ordu	3 ordu	0 ordu
OSLA	6 ordu	6 ordu	6 ordu
LELA	2 ordu	2 ordu	2 ordu
Guztira	23 ordu	23 ordu	8 ordu

Plaza honen titularrak baja, lizentzia... hartuz gero, haren ordezkoa ikastetxera heltzen denean zer egiten da? Ebaluazioaren arabera era ezberdinetan kudeatzen da:

- Ordezkapena lehen edo/eta bigarren ebaluazioan gertatzen bada:

Lanpostu horrek astean 23 irakastordu izango ditu. Jardunaldi osoa 17/18 irakastorduko denez, ikastetxeak ordu gehigarri horiek kentzeko eskatu ez badu, ordezkoei eskatu beharko du. LHn, ahal den heinean, moduluak zatitzea komeni ez denez, ondorengo bi aukerak suertatu daitezke:

23 ordu banaketa = 17 + 6

	A ordezkua		B ordezkua
ASESE	12 ordu	OSLA	6 ordu
PLANES	3 ordu		
LELA	2 ordu		
Guztira	17 ordu	Guztira	6 ordu (jardun herena)

23 ordu banaketa = 18 + 5

	A ordezkua		B ordezkua
ASESE	12 ordu	PLANES	3 ordu
OSLA	6 ordu	LELA	2 ordu
Guztira	18 ordu	Guztira	5 ordu (jardun herena*)

Laburbilduz, lanpostu honen ordezkapena egiteko hezkuntzak ikastetxera bi irakasle bidali beharko ditu:

- Jardunaldi osoko irakaslea (17/18 irakastordu).
- Jardunaldi hereneko irakaslea (17/18 irakastordu).
- Ordezkapena hirugarren ebaluazioan gertatzen bada:

2. mailako ikasleak praktketan daudenez eta klase orduak murriztu direnez, ordezkoak 1go mailako moduluak besterik ez ditu izango eta ondorioz 8 irakastordu izango ditu, jardunaldiaren erdia izanik, eta kobratu ere horrela egingo du.

- Ordezkapena hirugarren ebaluaziora luzatzen bada ere:

Jardunaldi herenean dagoen ordezkoari kontratua etengo diote eta jatorriz osoan zegoenari kontratua aldatuko diote, jardunaldi murriztu batera pasatuz**.

Kasuistika oso zabala izan daiteke, plazak 19-20-21-22-24 eta 25 ordu astean ere izan baitezake. Ikastetxetik aukera ezberdinak eskaini ahal dizkiote ordezkoari. Legez, modulu banaketaren onarpena, ikastetxeko zuzendaritzak egin behar du.

Edozein izanik zure kasua, jakizu eskubidea duzula 18 ordurarte klaseak baino ez emateko (hala baitago araututa).

18 irakastorduz baino gehiago aritu bazara lanean, zure eskubideei eutsiz, Hezkuntzan erreklamazioa jartzea gomendatzen dizugu.

Deitu lasai asko **STEILAS**era eta zure kasu partikularra aztertuko dugu eta orduak nola banatu ditzakezun azaldu (beti ere ikastetxeak berak aurreikusi eta egin ez badu).

* Jardun herenari 6 irakastordu dagozkionez, 5 ordu horiek beste ordu batekin osatuko dira ikastetxean.

** Pertsona horrek kontratu aldaketari uko egin ahal izango dio, beti ere jardunaldi osoan BAKARRIK apuntatuta baldin badago.

Gure nomina (2019)

%2,55eko igoera jasota dago

Gure nominaren kontzeptuak lau multzotan bil ditzakegu hobeto ulertzeko:

- A. Denok kobratzen ditugun kontzeptuen kodeak: 1000, 2004, 2103 eta 2108.
- B. Antzinasunaren araberakoak: 1020, 1027, 2130, 2135 eta 2140.
- C. Karguenak: 2145 (mota ezberdinak daude kode honekin).
- D. Maisu-maistren gehigarrienak (DBH/EPA): 2640 eta 2146 kodeak.

Kontuan eduki antzinasunean lehenengo hirurtekoa idatziz eskatu behar dela.

Sortzapenak

Jaso behar duguna (eurotan eta hilabetero)				
Kodeak eta Kontzeptuak	Maisu – maistrak	LH-ko irak. teknikoak	BH/HEOko irak.	Katedradunak
1000 Soldata	1.020,28		1.179,96	
1020 Antzinasuna (hirurtekoak)	37,03		45,41	
1027 Oinarrizko aldea (hirurtekoak)	7,75		8,86	
2004 Destino Osagarria	596,42	748,56		921,31
2103 Berariazko Osagarria	599,04	793,22	678,19	823,79
2108 CE Kapitalizazioa	269,40 (denok kobratzen dugu)			
2130 CE 1er grado esp. Ded.	82,33 (6 urteko zerbitzuak izanez gero)			
2135 CE 4º grado esp. Ded.	49,11 (24 urteko zerbitzuak izanez gero)			
2140 CE 5º grado esp. Ded.	40,71 (30 urteko zerbitzuak izanez gero)			
2145 CE Adic. Cargo-Tutorea	60,68			
2145 CE Adic. Cargo-Koord	55,14			
2145 CE Adic. Cargo-Mintegib.	55,28	54,68	79,23	
2145 CE Adic. C. Zuzendaritza	(Gela, ikasle edo irakasle kopuruaren arabera)			
2640 CD Adic. Maisu-Maistra DBH	152,14			
2146 CD Adic. Maisu-Maistra EPA	68,18			

Azalpenak GSko kotizazioa-oinarrien atalean

Siglak: **LI** Lan Istripua **LG** Lanbide Gaixotasuna **AT** Accidente laboral **EP** Enfermedad Profesional

Atxikipenak: deskontatzen digutena

Denok: 401 P.F.E.Z. (IRPF)-aren gaineko atxikipena: Sortzapenen ehuneko bat da. Urtean behin, langileak urte horretarako ehunekoa igotzeko eska dezake.

GS-koak: 350 Trab. cont. comunes: erretiro eta osasun asistentziarako kotizazioak. Sarrera gordinen %4,7.
370 Trab. desempleo (bakarrik bitarteko funtzionarioak): Sarrera gordinen %1,55.
380 Trab. formac. profesional: Sarrera gordinen %0,1.

MUFACEkoak: 9360 ESKUBIDE PASIBOAK: erretirorako kotizazioa.

9350 MUFACE: osasun asistentziarako eta prestazioetarako kotizazioa.

Aparteko ordainsarietan (ekainean eta abenduan):

- Oinarrizko aldea (1027) ez dugu kobratzen.
- Oinarrizko soldata (1000) eta hirurtekoen (1020) %72 (A1 taldean) eta %61 (A2an) jasotzen dugu.
- Beste kontzeptuak berdin kobratzen dira.

www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu